



HERRIKO BIDEETAN MOTO ETA ANTZEKO IBILGAILUAK MODU DESEGOKIAN DABILTZA

Herriko bideek guztiok ibiltzeko dira eta bideen erabilera egin behar denean era arduratsuan egitea eskatzen da, beste inori kalterik sortu gabe.

Udal honetan jasotzen den kexa dela eta ondorengo ikusten da:

- .-herriko zenbait gazte, motoekin herri bideetan dabilta inolako ardurarik gabe.
- .-herriko gazteek motoekin, seguritate neuririk hartu gabe, bideen erabilera era desegokian egiten ari dira.
- .-herriko gazteek bide hauetan dabilten beste ibilgailu, traktore e.a. ez dituzte errespetatzen.
- .-herriko gazteek bere buruak arriskuan jartzeaz gain, bertan dabilten beste edonori arriskuak sortzeko beldurra adierazi da.

Horregatik, dei honen bidez, arreta eskatzen da, alde batetik gazte hauen gurasoei eta bestetik gaztei.

Herri bideak, pasoko bideak dira, motorra duen ibilgailuekin eta oinez ibiltzekoak dira, eta bertan ezin da jolasean ibili, beren buruak arriskuan jarriaz eta erabiltzaile zuzenei ere arriskua sortuz.

Beraz, herri bideak ez dira jolasean ibiltzeko lekuak, bide hauen ondoan, etxe eta baserriak daude, eta bertan bizi direnak ere errespetatu behar dira.

KONTUZ IBILI, BIDEAK EZ DIRA JOLASEAN IBILTZEKO, ZUEN BURUAK ARRISKUAN JARTZEN DITUZUE ETA BERTAN DABILTZENAK ERE ARRISKUAN SENTITZEN DIRA.

Abaltzisketan, 2017eko martxoaren 6an